

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Udalak Bretxako emakidaren iraungipena deklaratzeko prozesua hasi du

*Udalak subsidiarioki hartuko ditu bere gain Arrandegi inguruko urbanizazio-obrak*

Donostiako Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren bitartez, Bretxako Merkatua ustiatzeko eta kudeatzeko emakida-kontratua suntsiarazteko espedienteari hasiera emateko erabakia hartu du, emakida ebazteko eta Baika Mercados SLren kudeaketa amaitzeko dituen legezko mekanismoak aktibatuz.

Eneko Goia alkateak adierazi duenez, "merkatuaren kontratua baliogabetzeko erabaki hau emakidadunaren ez-betetze goriak eragin du, merkatuko obrak gelditzea eragin duena, baita haren jarrera iheskorra eta luzamendutan ibil izanak ere". Gaineratu duenez, "Udalaren asmoa emakida baliogabetzea da, emakidadunaren eta Arkoak eraikinean dauden saltokien artean eta, jakina, merkatu tradizionalako saltzaileen artean, egun dauden kontratuak ahal den neurrian errespetatuz. Horretarako, Udaleko Zerbitzu Juridikoak aukerarik egokienak aztertzen ari dira hori bermatzeko".

Hala, joan den otsailaren 16an, ostiralean, Baika Mercados SLri jakinarazi zitzaion Aldamar eta Iñigo kaleetako urbanizazio osagarriko obren hasiera, merkatu tradizionala lekuz aldatzea ahalbidetuko duten obren hasiera eta obra horiek gauzatzeko lizitazio-prozeduraren hasiera nahitaez egikaritu behar direla, modu subsidiarioan eta emakidadunaren kontura.

Goiak nabarmendu duenez, "PSEk eta EAJK osatutako gobernu taldeak hartutako erabaki hau EH Bildu oposizioko talde nagusiarekin ere partekatu, hitz egin eta adostu da, eta eskerrak eman nahi dizkiogu Gobernuarekin Bretxarako irtenbide bat adosteko erakutsi duen borondateagatik, bai gaur ezagutarazi dugun erabaki honetan, bai etorkizunean emango ditugun pausoetan".

#### **Kontratua ez da bete**

1995ean Bretxako merkatuaren kudeaketa 2049. urtera arte kontzesio bidez emateko erabakia hartu zenetik gertatu diren hainbat mugarrien artean, **2018an**, merkatua ustiatzeko eta kudeatzeko emakida kontratua aldatu zen, eta Arrandegi eraikineko gune jakin batzuetara zabaldu zen, euskal gastronomia eta haren produktuak sustatzeko jarduerak eta saltzaileen merkaturako, eta **plazaren erabilerak berrantolatzeko eta urbanizazio obra osagarriak egiteko ardura eman zitzaion**, guztiak udalerriko interes publikoko jarduketak.

**2022an**, emakida kontratuaren beste aldaketa bat formalizatu zen, egin beharreko obrak zabaltzeko eta **Osasun Zentroa eta beste instalazio batzuk gaitzeko lanak** barne hartzeko. Kontratuaren aldaketa horrek obrak gauzatzeko 24 hilabeteko epea ezartzen zuen, eta gauzatze-epe partzial batzuk ezartzen ziren merkatu tradizionala lekuz aldatzeko (2023ko urtarrilaren 31) eta Osasun Zentroa gaitzeko (14 hilabete egikaritze proiektua onartzen zenetik).

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Alkateak adierazi duenez, dena adostutakoaren arabera gertatzen ari zela zirudien, baina lehenengo alarma-seinalea 2023ko urtarrilean izan zen, obrak hasi gabe zeudenean eta merkaturia Arrandegi eraikinera lekualdatu ez zenean. "Emakidadunarekin harremanetan jarri ginen, eta adierazi ziguten lekualdatzea ez zela posible izan obrak atzeratu zirelako, asentatzaileek ez baitzuten sinatu lekualdaketa ahalbidetzen zuen hitzarmena Baikarekin", azpimarratu du.

Hurrengo seinalea martxoan izan zen, emakidadunak Iñigo eta Aldamar kaleak eta plaza urbanizatzeko obra osagarriekin hasi behar zuenean, baina hasiera ez zen gertatu. Une horretatik aurrera, eta emakidadunetik iristen ziren seinale kezkarrien aurrean, Udala emakidadunarekin harremanetan jarri zen atzerapenen arrazoiak ezagutzeko, beharrezko errekerimenduak bidaliz eta "udal eta donostiarren interesak babesteko" eman beharko lituzkeen urratsak aztertuz, "emakidadunak bere konpromisoak beteko ez zituela aurreikusten baitzen".

"Gure jarduketak legez babesteko urratsak egiten joan gara, emakidadunari obrei berriro ekiteko behin eta berriz bidalitako errekerimenduez gain", adierazi du Goiak, eta azaldu du joan den otsailaren 5ean Idazkari Nagusi eta Zuzendari Juridikoa Bretxako merkaturia instalazioetara joan zela, eta Bertaratze-akta egin zuela. Bertan, obren egungo egikaritze-egoera jaso zuen, egoeraren fede eman zuen eta jakinarazi zuen emakidadunak bere **funtsezko betebeharren arau-hauste larria egin duela, eta hori emakida iraungitzeko arrazoi del**a.

Txostenaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoi dago; izan ere, emakidadunak arau-hauste oso larria eta larria egin du obrak etengabe gelditu direlako justifikatutako arrazoirik gabe, eta ez du zerbitzua behar bezala kudeatu eta ez ditu lokalak eta instalazioak kontserbazio-egoera onean mantendu. Bi hauste hauek kontratua suntsiarazteko arrazoi dira.

### **Obren igarotzean izan diren ondorioak**

Obren egoerari dagokionez, Arrandegi eraikinaren eraispen eta egitura-errefortzuak, kanpoko eta barruko ingurutzailak eta elementu komunak egiteko fasean, 2021ean hasi zirenak eta gaur amaituta egon beharko luketenak (horien amaiera-data 2023ko martxoaren 22rako aurreikusita zegoen), amaitu gabe daude.

Merkatu tradizionala amaitu gabe dago, merkatuaren gaineko fundazioari zuzendutako espazioa egoera berean dago eta Aldamar eta Iñigo kaleetako eta plazako urbanizazio lanak ez dira hasi. Bestalde, Osasun Zentroko, kirol-pistetako eta beste instalazio komun batzuetako obrak egin dira. Egiteko geratzen diren obren zenbatekoa 9.211.497 eurokoa da.

### **Emakidaren historia**

**1995ean** Udalak Bretxako Merkaturia 53 urterako esleitzea erabaki zuenetik, hainbat mugarri izan dira:

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



- **1995eko apirilaren 3an**, Centro Comercial La Bretxa SA sozietateari Arkoak eta Arrandegi merkatuak birmoldatzeko eta eraldatzeko emakida esleitzea erabaki zen.
- **2007ko ekainaren 1ean**, "HVB Immobilien Verwaltungs GMBH & CO, Madrid 1 KG" enpresari emakida-kontratua esleitu zitzaion.
- **2015eko maiatzaren 8an**, emakida-kontratua aldatzea erabaki zen, eta maiatzaren 11n emakida aldatzeko hitzarmena sinatu zen, bertatik Arrandegi eraikineko gunek jakin batzuk kentzeko eta erabilera publikorako erabiltzeko.
- **2016ko abenduaren 20an**, Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman zion "HVB Immobilien Verwaltungs GMBH & CO, Madrid 1 KG" sozietateari kontratua "Abastos Gestion, SLU" sozietateari lagatzeko (gaur egun Baika Mercados SL).
- **2018ko ekainaren 26an**, aldatu egin zen Bretxako merkatua ustiatzeko eta kudeatzeko emakida-kontratua, eta Arrandegi eraikineko gunek jakin batzuetara zabandu zen, euskal gastronomia eta haren produktuak sustatzeko jarduerak eta saltzaileen merkaturako, eta Bretxa plazako erabilerak berrantolatzeko eta urbanizazio-obra osagarriak egiteko ardura eman zitzaion, guztiak ere udalerriko interes publikoko jarduketak.
- **2022ko apirilaren 19an**, emakida-kontratuaren beste aldaketa bat formalizatzen da, emakidadunak Arrandegi eraikinean egin beharreko obrak zabaltzeko, eta obra horietan Osasun Zentroa eta beste instalazio batzuk egiteko lanak sartu ziren.

Donostia, 2024ko otsailak 20